



BAGERAREN BULETINA

2018 urria

Kaixo bagerakide,

Ikasturte berrian sarturik gabiltza eta ohi bezala buletinaren bidez eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu. Ohi bezala, gogotsu hasi dugu ikasturtea!

EUSKARALDIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo dugun ariketa sozialerako, [Euskaraldirako, izen emateko](#) epea zabalik da dagoeneko. 11 egunez euskaraz hitz egin, entzun, aritu, eta euskaraz bizitzeko ekimena izango da.

[Ahobizi](#) eta [belarriprestak](#) izango dira protagonistak. Izen emateko hiru aukera izango dira: [auzoetan](#) hainbat lekuetan eskuragarri izango dituzuen buzioen bidez, [interneten](#) zintzilik dagoen galdetegian edo Bagera Elkartera etorri (Hernani kalea 15, behe). Eta zuk zein rol hartuko duzu Euskaraldian?



Ahobizi

Ulertzen duenari euskaraz egiten diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza euskaraz egiten diet.



Belarriprest

Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Euskaraldiko urriko jarduerak:

Urriaren 25ean Barrexaerka emanaldia 20:00etan Zirkuko karpan (Saguesen).

Honetaz gain, Irutxuloko Hitzak gehigarri berezia argitaratuko du.

Mintzalaguna kanpaina abiatzear

Mintzalagunen izen ematea **urriaren 1etik aurrera** martxan izango da. Ikasturte batetik bestera euskara praktikatu nahi duen bidelari kopurua handituz doa. Hori dela eta, gero eta bidelagun gehiago behar ditugu. Astean ordu bete eskaintzeko aukera baduzu euskara praktikatu nahi duten ikasleekin elkartzeko jarri gurekin harremanetan. Egin beharrekoa oso sinplea da: ordubetez euskaraz aritzea beste bizpahiru bidelariekin. Zure inguruan ere astean ordu bete eskaintzeko moduan norbait dagoela uste baduzu, animatu eta gurekin harremanetan jartzea eskertuko dizugu.

Oharra: Ikastetxe bateko gurasoa bazara ikastetxean bertan egin dezakezu zure ekarpena. **Mintzalagun** taldeak osatu nahi dituqu qurasoen artean ikastetxeetan mintzapraktika egiteko. Beraz, animatu eta izena eman!

Mintzodromoa

Urriaren 17an San Telmo Museoan burutuko dugu ikasturteko lehen Mintzodromoa. San Telmo Museoarekin, Donostiako Euskaltegiekin eta Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean antolatuko dugu. Betiko moduan, bi txanda izango ditugu, goizeko 10:00etan eta 11:00etan. Laguntzaileak beharko ditugu, beraz, ez geratu zain eta eman izena telefonoz (943 005 074) edo emailaz (mintzalaguna@bagera.eus).

Elkarrizketa Filosofikoak

Urriaren 1ean, astelehena, arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara Urrats Euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12 - atzeko aldeko lokalean-) izango da ikasturte honetako lehen Elkarrizketa Filosofikoa. Landuko den gaia Euskalduntasun etnokulturaletik euskalduntasun nazionalera. Informazio gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jarri zaitezke.

Donostia Dantzan: Erromeria

Urriaren 20an, larunbata, Bagera Elkarteak, Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, erromeria antolatu du ohi bezala Parte Zaharreko Plaza Berrian 18:30etik aurrera. Jotzaileak Donostiako Udaleko Txistulariak izango dira eta dinamizatzaileak Nora García eta Lur Aranzadi. Egitaraua [ikusi](#)

Zubideiak gunerekiak

Zubideiak gunerekia euskara desberdin bizi, erabili eta sentitzen dutenen arteko ariketa soziala. Aurten bigarrenegingo da **urriaren 20an** Donostiako Miramar jauregian 9:00etatik 18:00etara. Euskara, Aniztasuna eta Elkarbizitza gaia hartuta “Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?” izango da hitz egiteko bide emango digun galdera eta hortik sortzen zaizkigun guztiak mahai-gaineratuko ditugu. Informazio gehiago [hemen](#).

Kantu taldeak eta Kantu Jira

Urriaren 20an izango da urriko Kantu Jira, ohi bezala, eguerdiko 12:00etan Fermin Calbeton kaletik abiatuta. Egun horretan denok ezagutzen ditugun euskal kanta tradizionalak abestuko ditugu.

Horretaz gain, “Donostia kantuz”-eko taldeak martxan jarriko dira hilabete honetan (Aiete, Altza, Amara Berri, Intxaurren eta Parte Zaharrean). Taldeak noiz eta non biltzen diren jakin nahi izanez gero gurekin jarri harremanetan. Animatu eta gozatu euskal abestiak kantatuz!

Humboldt Euskal Herrian: nazioa eta hizkuntza, liburuaren aurkezpena

Euskaldunak ezagutzera etorri diren bidaiari klasikoaren artean Humboldt da seguruenik ezagunenetako bat. Zergatik etorri zen gure artera? Zer ikasi zuen hona etorrita? Galdera hauei erantzun nahi die Iñaki Zabaleta Gorrotxategik argitaratu duen liburuan ([Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria](#)) eta urriaren 24an, 19:00etan San Telmo Museoan, berarekin egingo dugun Soziolinguistika Solasaldian.

Mendian ere euskaraz

Urriaren 28an, igandea, “Mendian euskaraz” ibilaldia egingo da Urbasako baso sorgindura, ohiko jardunean euskaraz bizi diren hainbat mendi taldek antolatuta.

Mendian euskaraz bizitzeko eta beste arnasmune bat eskaintzeko sortu zen taldea. Euskal Herriko, tokian tokiko, mendizale euskaldunekin harremanetan sartu nahi dute, bakoitzak bere inguruko mendien ondarea besteoi ezagutzera emateko. Horretaz gain, mendizaletasuna euskaraz garatzen duten taldeak ezagutzera eman eta elkarren berri izatea nahi dute. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu mendianeuskaraz@gmail.com helbidera idatz dezakezu edo <http://mendianeuskaraz.blogspot.com/> orria bistaratu.

Irutxuloko Hitza berritua!

Udazkena aldaketetarako garaia izaten da: Ordutegia, urtaroa, arropak,... eta guzti horien artean, aurtengoan, baita Irutxuloko Hitzaren itxura eta mamia ere. Urriaren 5ean, Irutxuloko Hitzak paperezko formatu berria kaleratuko du eta [web gunean](#) ere berrikuntzak egongo dira. Aitzakia horrekin, dagoeneko Hitzakide ez zareten Bagerakideei, eskaintza berezia egiten dizuegu. Udazkenean Hitzakide eginez gero, lehen urteko kuotan %25eko deskontua izango duzue. Animatu, jarri gurekin harremanetan eta ez galdu aukera udazkeneko haize berriekin freskatzeko!

Agenda laburtua

Urriak 1, astelehena, 19:00etan [Elkarrizketa Filosofikoak](#) Urrats Euskaltegian (Amara Berri).

Urriak 3, asteazkena, 19:00etan [Mintzo pote](#) Rekalde tabernan (Parte Zaharra).

Urriak 5, ostirala, **Irutxuloko Hitza berrituaren** lehen alea.

Urriak 17, asteazkena, 10:00etatik 12:00etara [Mintzodromoa](#) San Telmo Museoan (Parte Zaharra).

Urriak 20, larunbata, 09:00etatik 18:00etara [Zubideiak 2](#) gunerekia Miramar Jauregian (Aiete).

Urriak 20, larunbata, 12:00etan [Kantu Jira](#) Fermin Calbeton Kanean (Parte Zaharra).

Urriak 20, larunbata, 18:30ean, [Erromeria](#) Parte Zaharreko plaza Berrian (Konstituzio plaza).

Urriak 24, asteazkena, 19:00etan, [Soziolinguistika Solasaldia](#) San Telmo Museoan (Parte Zaharra).

Urriak 25, osteguna, 20:00etan [Barrexerka](#) Zirkuko Karpan (Sagues).

Urriko asteburuetan [Euskaraldia: “Gure Zirkua”](#) Saguesen (Gros).